

*Arizmendiarieta beti egon zen arduratuta kooperatibak aurrera ateratzeko langile-bazkide guztiak konturatu behar direla langilea eta enpresaria batera direla, enpresa geurea dela esanez, eta ahalik eta hobeen mantentzen behar genuela guretzako eta etorriko direnentzako.*

*Hilabete honetan Arizmendiarietaren Gogoetak liburutik hartutako esaldiak dakartzkigu eta bakoitzaren KONPROMISOAZ eta ARDURETAZ hitz egiten digu.*

### ***Kooperatibista, langilea ez ezik enpresaburua ere bada. p492***

*Eta ondoren datozen esaldi birobilak ere idatzi zituen:*

*Denok jabe eta denok enpresaburu: denok, bereizkeriarik egin gabe, eztieta eta ozpinetan, kapital erabilgarriak jarriz eta egin beharreko lana eginez. p493*

*Arriskuren bat hartu ezik, ez da ezer lortzen. p540*

*Lanaren betebeharra eta hortik datorren guztia seriotasunez hartzea, gaur egun eta gure kasuan, langileen samalda handiari egin dakiokkeen atxikimendu frogarik onena da. Guri, lana gure kabuz eta gure kontzientziaren, duintasunaren eta eskubideen arabera antolatu dugunoi dagokigu, inori baino gehiago, langilea egiteko kapaz dena behar bezala erakustea, eta egiaztatzea langilea benetako heldutasunera iritsi dela eskubide osoz jarduera sozio-ekonomikoak gidatzeko eta ondoriozko esku hartze politikoetan jarduteko. p498*

*Kooperatibismo osasuntsu baten oinarrian erantzukizuna zentsu sakona duten pertsonak egon beharko dira, prozesu ekonomikoan zuzenean inplikaturik eta beraien komunitateko presio sozialaren menpe dauden pertsonak, alegia. p125*

*Kooperatiban guztiok gara guztiaren erantzule. p127*

*Erantzule izateak, hain zuzen, esan nahi du agindu zaizkigun lanetan erabat ordezkazina izatea. p110*

*Autogestionatutako gizartea izango da guk denok gure prestakuntzarekin eta gure parte hartzeko gogoarekin egiteko gai garena. p103*

*Kooperatibistok nabarmendu behar gara gure konpromisorako gaitasunaren bitartez, gestioan aplikatzeko gai garen aurreikuspen, plangintza, antolamendu eta proiektio mailaren bitartez. p479*

*Kooperatiba batean sartzen denak ez du pentsatu behar desiragarria eta eskuragarria den zerbaitetan sartu dela eta ez duela besteengan pentsatu behar izango. p456*